

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abenduaren 20a



## Gregorio Arizen mendi magikoak

■ *Montaña mágica. Veinticinco años de expediciones navarras extraeuropeas* izenburuean, azken 25 urteetako euskal mendizalearen historia jasotzen duen liburua eman du argitara Gregorio Ariz mendizale nafar ezagunak, Txoria Errekan

argitaletxearen eskutik. 120 orrialde eta 200 argazki, Euskal Herriko lehenagoko eta oraingo mendizaleen gogo eta erronkak azaltzeko. 25 urtetako historiaz egindako kontakizuna eta mendia bera izan ditugu mintzagai Arizekin. ■

## Metropoli forala

FELIPE RIUS



Goizaldean telebista piztu eta *road movie* bat jartzen ari dira, baina hau ez da estatubatuarra, italiarra baizik, eta nire adinekoren hamaikagarren kronika jenerazionala ikusi dut. Gu baino zaharragoak direnek urteak daramatzate beren esperientziak kontatzen, eta, orain arte bururatu ez bazait ere, goizaldean pentsatu dut jende gehiena hogeita hamabost urte betetzean hasten dela bere belaunaldiaren erretratoak egiten, muga ikustezin bat pasa eta memoria goiztiarrak idazten hasteko beharra sentitu izan balute bezala.

Marokon barna egindako bidaia inizatikoa, haxixa, aspaldiko adiskidetasunen hondarrak, sexuari buruzko gogoetak... Topiko ugari daude errepideko filme italiarrean, baina agian horregatik identifikatzen dut nire burua

## Belaunaldi baten kronika zuri-beltzean

hainbat eszenatan eta zenbait pertsonaia ezagun egiten zaizkit. Belaunaldien kontuak topikoz beterik daude. Batzuek diotenez, gure aurrekoa irabazleena izan zen eta gaur egun boterean daude.

Gainera, haiek izan omen ziren iraultza sexualaren berri izan zuten lehenengoak, hemendik kanpo ibili zirenak behintzat, Euskal Herrian iraultza sexuala oraindik egiteke baitago askoren iritziz. Gurea, berriz, gurasoen etxetik garaiz eta ezkondu gabe alde egin zuten azken belaunaldia da, edo hala dio behintzat lagun batek. Jakina, jenerazioen kontuan ezin da jeneralizatu. Nire adineko batzuek mariocondemutat jotzen zituzten haiek baino gazteagoak ziren guztiak. Gero extasiak eta gainerrako pilulak iritsi ziren eta hutsik geratu

ziren Ekonomia fakultateak, ikasleek diskotekak nahiago baitzituzten.

Zertarako jaitsi Marokora etxe ondo-ko garitoan mota guztietako sentsazioak eta koloreak aurki badaitezke? Zertarako idatzi poesia elektronikak mundu birtual posible guztiak erakusten badizkigu? D. J. (diyei edo disc-jockey) batzuek rockaren jainkoen tokia hartu duten milurte bukaera honetan karroza batzuek belaunaldien arteko amildegi ikaragarriez eztabaidatzen dute goizaldeetan, aspaldiko bidaiak gogoratzen dituzte eta negar egiten dute aspalditik errepideko pelikula onik egiten ez delako. Leihotik behoko tabernako musika elektronikoa sartzen da, baina ez dute entzuten, ez dute entzun nahi. Haiek dira zuri-beltzeko istorioak maite izan dituen azken belaunaldia.

\* **GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Iruñea:** Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 21, Donibane auzoko Banderre tabernan, auzoko kultur astearren barruan.

**ERAKUSKETAK**

**Burlata:** Burlatako antzinako argazkien erakusketa ikusgai izanen da urtarrilaren seira arte Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera 19.00etatik 21.00etara izanen da zabalik, eta igandean 12.00etatik 14.00etara.

**Iruñea:** Alberto Laveriaren mar-goak Pintzel galerian (Abejeras, 6) ikusgai izanen dira abenduaren 31ra arte, goizetan 10.30etatik 13.30etara, eta arratsaldeetan 16.30etatik 20.00etara. Larunbat arratsaldeetan eta jaiegunetan aretoa itxita egoten da.

**ANTZERKIA**

**Iruñea:** Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoez bi emanaldi eskainiko dituzte bihar, hilak 21, Gaiarre antzokian: eguerdiko 12.00etan bata, eta arratsaldeko 18.00etan bestea.

**Leitza:** Txalo taldeak *Xagu trampa* obra taularatuko du bihar, hilak 21, arratsaldeko 19.00etan, herriko zineman, Euskara Batzordeak eta Kultur Taldeak antolatuta.

**IKASTAROAK**

**Sakana:** Bailarako AEK-k abenduaren 31ra arte luzatu du euskaltegiaren izena emateko epea. AEK-k urrats, guztiak eskainiko ditu, ordutegi ezberdinetan, eta horietaz gain EGA gaintzeko ikastaroa eta euskaldun zaharrentzako alfabetatze ikastaroa ere izanen dira. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero deitu 46 82 58 telefonora.

**Iruñea:** Taloak egiteko ikastaroa izanen da gaur Donibane auzoko AEK-ko euskaltegian, arratsaldeko 19.00etatik aurrera, auzoko aste kulturalaren barruan.

**BESTELAKOAK**

**Zangoza:** Jose Maria Jimeno Juriok *Zangoza eta Eguberria* eguberri-pregoia irakurriko du gaur, hilak 20, arratsaldeko 20.00etan. Horren gibeletik, jaitza erakusketa zabalduko dute. Zangozako Aurore taldeak ekitaldiak alaituko ditu.

**Iruñea:** Santo Tomas egunerako, hilak 21, txistorra jatea antolatu du Zaldiko Maldiko elkarteak Antsoleaga kaleko egoitzan. Elkarteak «Iruñerriko euskaldun eta euskaltzale guztiak» horretan parte hartzeko gonbita egiten die.

**Iruñea:** Nafarroa kirol elkarteak bi mendi irteera antolatu ditu iganderako, hilak 22. Mendi Eskola batzordeak Gorbeira egiten du ateraldia. Kirol elkarteak berak, berriz, zeharkaldia egiten du Lizarrustitik Guardetxera. Izena emateko deitu 22 43 24 telefonora.

*nafarkronika*

Fermin Erbiti

**Urteko balantzea**

**U**rtea azkenengoetan dagoela kontuan hartuz, asteko kronika hau urteko bihurtzen saiatuko naiz, bat-batean, gehiegi pentsatu gabe, burura datozkidan albisteak errepasatuz.

Politikagintzari dagokionez, ezertan hasi aurretik, ekainaren 18an Kordobillako egunkariak argitaraturiko titular batek urte bitan zatitu zuela aipatu behar da. Egun hartan etikarik gabeko politikarik egiten ez omen zekienak argitaraturikoa egia zela aitortu eta lehendakartzatik alde egin zuen urtebetez iraun zuen hirukoitza hiltzeko zorian utziz.


Haizeak hitzak eramaten dituen bezalaxe, eskandaluak ere denborak eraman ohi ditu, batez ere horrelakoetara ohiturik dagoen gizarte batean. Otanorenarekin ere horixe gertatu zen, uste baino lehenago, Sanferminak eta Frantziako Tourrari esker. Astebeteko festaldiaren ondoren Iruñean dena prest zegoen Indurain horiz jantzita ikusteko baina, zorionez, kirolariak sorpresak izaten dira. Amaitze dagoen urteari buruzko balantzea egiterakoan atarriarraren nahi eta ezina gogoratu behar da, horixe izan baita, kirolari dagokionez, albiste nagusienetakoa.

Indurainek mendateetan atzean ez gelditzeko ahalginak egiten zituen bitartean, Nafarroan batzuk hirukoitza berpizten saiatzen ari ziren. Berteak, oposizioan jokatzeko ikasi nahi ez zutenak, urtebeteko amesgaiztotik esnatzeko ordua iritsia zela konturatu ziren, sozialisten gestora berriaren azalpenak entzun eta gero.

Prozesu luze bezain asperrariaren ondoren Sanz bere karguaz jabetu zen aurrekontu eta legeak onartzeko beharrezko duen laguntza sozialistengan aurkituko zuelakoan, bai-

na Parlamentuan azken asteetan gertaturikoari erreparatuz ez dirudi boto horiek ziurtatuta dituenik. Bertalde, diputazioburuaren zeregin nagusienetakoa Nafarroa bere osotasunean onartu eta nafar guztiak errespetatzea dela ahazturik, oso hurbil dituen batzuen aholkuari jarraituz, otsaileko kongresuari eman dio lehen tasuna zenbait diskurtso eta adierazpenetan. Izan ere, alderdian lidergoari eusteko horrelakoak bota behar omen dira. Hala bada, otsailera arteko *perlak* ergelkerien museoa gordetzeko modukoak izan daitezke.

Orain artekoa kronista xume honi bat-batean, urteko balantzea egiterakoan bururatzen zaiona. Kronika idazteko ematen diguten lekua amaitze dagoenez, bertzerik ez. Olentzerok pake, osasuna eta opariren bat ekar diezagula eta 1997a urte zoriontsua izan dadila Nafarkariaren irakurleentzat.



*asteko pertsonaiak*



**Miguel Indurain**  
Txirrindularia

■ Estralurtarra dela inork ez du zalantzan jartzen. Gehienentzat mundu honetan inoiz izan den txirrindularirik hobereena da, kirolari estralurtarra. Gainontzekoentzat, mundu honetan inoiz izan den gizonik zozoena da, zozo estralurtarra. Azken egunotan jakin dugu Atarrabiako estralurtarrak urtebete gehiago emanen duela txirrindularitzan: urtebete gehiago errepedetan kirolari estralurtarra dela uste dutenen zorionerako, eta urtebete gehiago hedabideetan zozo estralurtarra dela iritzi diotenen zoritxarrerako. Bihar Gotorlekuan Iruñeko hiriaren omenaldia jasoko du. Agian datozen hamabi hilabeteetan zein elastiko jantziko duen argituko du. Litekeena da ONCEkoa izatea, baina batek daki, estralurtar bategandik edozein gauza espero daiteke eta.



**Itxaro Borda**  
Idazlea

■ Oragarreko idazleak *Amorezko pena baño* liburua aurkeztuko du gaur Iruñean eta Tuteran. Liburuak Amaia Ezpeldoi detektibe ospetsuaren beste abentura baten berri ematen du. Borden hitzetan, «nobela berria aitzinekoen segida da (*Bakean ützi arte* eta *Bizi nizan munduan*), eta pertsonaia nagusi berarekin segitzen dugu. Zuberoako eta Nafarroa Behereko lurretan ibili ondoren, hirugarren nobelarentzat Amaiak proposatuko digu ibilaldi bat egitea Erriberan, Tuteran aldean. Auto istripu misterioitsu bat gertatu da, eta horren inguruan iragaten da guztia». Bardeetako istorio zenbait sartzen da, tiro poligonoaren inguruko gertaerak ere bai...

*ahaztu gabe!*



**MARTITZEKO KRONIKAK**

**Iruñea:** Martitzeko kronikak ikuskariaren estreinaldia egiten dute gaur Iruñeko planetariumean, arratsaldeko 19.30etan. Martitz planeta da saio berriaren ardatza. Muntaiak planeta gorria hainbat ikuspuntutatik aztertzen du: historikotik, artistikotik, mitologikotik eta, batez ere, astronomikotik. Halaber, entretenigarria izatea du helburu nagusi. Ikuskaria Javier E. Armentia Iruñeko Planetariumeko zuzendariak zuzendu du, Coruña Zientzien Etxeko, Madrilgo Planetariumeko eta Granadako Zientzien Parkeko zuzendariekin elkarlanean. Aipatu erakunde horiek guztiak, Iruñeko Planetariumak bezala, gaur bertan egiten dute muntaiaren estreinaldia. Iruñeko planetariumeko arduradunen arabera, «gaur egun Martitz aztertzen ari diren proiektu zientifikoak direla kausa, planeta gorria gaurkotasan handiko gaia da, eta, beraz, gure muntaiak ere gaurkotasan eta erakargarritasun handia du».

*adi!*

**Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

**Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n**

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

## Caseda

## Mauleko ikastolaren aldeko afaria 28an

Trinkete Kultur Taldeak antolatu du ikastolaren egoitza berria prestatzen laguntzeko

**C**asedako Trinkete Kultur Taldeak Mauleko Eperra ikastolaren aldeko herri afaria antolatu du. Datorren larunbatean izanen da, hilaren 28an, eta bertan bildutako dirua Zuberoko ikastolarentzat izanen da, egoitza berria erosi eta prestatzen ari baita Sohütan. 28ko afaria ezezik Casedakoek beste zenbait ekitaldi ere prestatzeko asmoa dute, beti ere harremanak sakontzeko xedez.

Erredakzioa / Iruñea

CASEDAKO herritarrek Mauleko (Zuberoa) Eperra ikastolaren aldeko herri afaria egingen dute datorren larunbatean, hilaren 28an. Eperra ikastola, hain zuzen, egoitza berria prestatzen ari da Sohütan, Maulen orain lokal publiko batean duena oso egoera txarrean baitago. Ikastolako arduradunek, baina, ez dute Zuberoko erakundeetatik dirulaguntzarik jaso, eta hori dela eta gurasoek eta irakasleek lanari ekin diote.

Casedako herrian Trinkete Kultur Taldeak jarri du abian Mauleko ikastolaren aldeko ekimena. Zangoza, Oibar, Ilunberri eta Zarrakaztelun ere egin dute bat Casedako asmoarekin. Datorren larunbatekoa prestatuko duten lehen afaria izanen da, baina badute besterik egiteko asmoa otsail edo martxo aldean. Halaber, udaberrian afari-kantaldia prestatu nahi dute. Beste ekimen hauek noiz eta non egingen diren, baina, ez dute oraindik zehaztu antolatzaileek.

28ko afaria Trinkete Kultur Taldearen egoitzan izanen da, Case-

dan. Txartelak dagoeneko salgai dira herriko tabernetan, 1.500 pezetan. Jendea inguruko herrietatik ezezik Mauletik ere etorriko dela uste dute antolatzaileek. Itxaro Borda Ikastolako lehen-dakaria, ziurrenik, bertan izanen da.

Afariaren bidez bildutako dirua Mauleko ikastolarentzat izanen

bada ere, mugaz bestaldeko euskaldunekin harremanak sakontzea da hilaren 28ko afariaren eta gero antolatuko dituzten beste ekitaldi guztien xede nagusia. Hain zuzen ere, Casedakoekin ezezik Tuterako ikastolako kideekin ere harreman estua dute Eperra ikastolako kideek.

## Ikastolaren aldeko kanpaina

**abian** • Osozara, 1,4 milioi liberako (35 milioi pezeta inguru) aurrekontua behar du Eperra ikastolako egoitza berria erosi, konpondu eta egokitzeko, hiru eta hamaika urte bitarteko ehun haur inguruk bertan ikasi ahal izan dezaten. Eperra ikastola duela 25 urte jarri zen martxan,

eta datorren irailean zabaldu nahi ditu etxe berriko ateak.

Bertan bost ikasgela, jantokia, atsedenerako eta psikomotritate lantzeko gela bat eta liburutegia jarri nahi dituzte Eperra ikastolako guraso eta irakasleek. Hain zuzen ere, helburu guztiak lortzeko kanpaina bat jarri dute abian. Sahuñtako etxea, Mauleko haurren ikastola berria izanen dena, hil honen hasieran aurkeztu zuten ikastolako arduradunek jendaurrean. Onartu zuten, egoeraren larritasunak bultzatuta hartu dute egoitza berria euren kabuz prestatzeko erabakia. «Seaskaren helburua baita ikastolako egoitza publikoetan egotea. X



Itxaro Borda da Mauleko Eperra ikastolako lehen-dakaria. Gurasoak lanerako prest dira.

BOB EDME

## Sakana

## 'Guaixe' hilabetekariak bi urte egin ditu gurekin

■ Poliki-poliki bere helburuak betetzen ari da

Erredakzioa / Iruñea

SAKANAKO Guaixe hilabetekariak bi urte bete ditu gurekin. Bi urte pasatu dira jada Sakanako hiru neska bildu eta lan honi lotu zitzaizkionetik. Aitziber Etxaiz, Amaia Amilibia eta Olatz Arrieta dira Guaixe-ko arduradun eta arima. Sakanako herri ezberdinetan kolaboratzaile sare zabala ere badute, herri guztietatik ahalik eta informazio zabalena eskaini ahal izateko irakurleari.

Hasiera-hasieratik, bi helburu garbi izan ditu Guaixe-k: Sakanako euskarazko informazioaren hutsunea betetzen saiatu, eta aldi berean, euskaldunen topa-

gune bihurtu. Eta poliki-poliki helburu horiek betetzen ari dira, oso zaila baita produktu berri bat eskualdean sustraitzea, are zailagoa euskaraz bada.

Aurrera jarraitzeko, inguruan sortutako iritzi eta eztabaidei so egin die Guaixe-k. Bi urte haue-tan, adibidez, euskalkien ingurukoa egon da. Guaixe-k Euskalkien Batzordea sortu du, eta herriz herriko aldaerak aztertu eta nolabaiteko arauak zehaztu ditu. Herri aldizkariak dohainik banatu edo saldu behar diren ere, eztabaida zabala da. Euskal Herriko hainbat herri aldizkari kobratzen hasiko dira, Guaixe-k ez du oraingoz halako erabakirik hartuko. X

## Lizarra

## Gazteek eginiko 'Baru' filmea emango dute hilaren 23an

■ Plastilinazko panpinak ditu protagonista

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO UDALAK udan Kima taldearen eskutik marrazki bizidunak egiten ikasteko tailerrean parte hartu zuten gazteen lana erakutsiko du datorren astelehenean Kultur Etxean. Jose Alberdik zuzendutako ikastaroan herriko zazpi gazte hartu zuten parte, eta, plastilinazko panpinak erabiliz, hamabost minutuko Baru filmea prestatu dute.

Udalaren lehenengo asmoa filmea urrian aurkeztea izan zen, baina lana atzeratu eta Gabonetarako utzi behar izan dute. Datorren ostegunean, beraz, hilaren 26an, filmea, pelikula nola egin duten jasotzen duen filmea eta

bertan erabilitako panpina eta maketak biltzen dituen erakusketa zabalduko dute. Urtarrilaren 3ra bitartean egonen da zabalik.

Jose Alberdi, Kima taldeko kide eta Lizarrako tailerreko arduraduna, pozik da azkenean lortutako emaitzarekin. «Genituen baliabideak eta denbora kontuan hartuta, lan polita egin da eta esperientzia ederra izan da».

Lizarran joan den udan egin ikastaroa, Kimako taldekideek euren egoitzatik kanpo prestatutako lehenengoa izan da. Esperientzia ona izan da, eta beste hainbat lekutan ere euren proiektua aurkezteko prest dira, Jose Alberdik aipatu digunez. X

## Iruñea

## Olentzero Euskalerrira Irratian izanen da asteartean

■ Opariak banatuko ditu entzuleen artean

Erredakzioa / Iruñea

ERRENIEGA gainean Euskalerrira Irratiak paratutako antena lanean hasia da, eta hori berehala sumatu dute entzuleek. Izan ere, orain irratiaren seinalea arras ongi zabaltzen da Iruñerriko zoko-moko guztietan: Iruñeko karrikarik meharrenean, garajezulorik sakonenean, autoan, irrati aparailurik txikien argi eta indarrean sartzen da euskaraz diharduen irrati honen ahotsa. Lehenbiziko helburua horixe zen, eta bete-betea asmatu dute. Eta, are, Iruñerriko mugak ere gaintu ditu: Gares, Agoitz, Arakil, Sakanako zati bat, Ultzamaldea eta beste bazter batzuetaraino ere garbi iristen da seinalea frekuentzia modulatuaren 91,4an.

Antena berria ezartzeko ahalegin handia egin behar izan dute diru aldetik. Horregatik, Euskalerrira Irratiko lankideek gogora ekarri nahi izan dute badela modu zuzen bat irratiari dirulaguntza emateko, hots, bazkide txartelaren bidez. X

## Olazti

## Sakanako Kirol Astea egiten ari dira astelehenean

■ Txirrindularitza izanen du gaurko mahai-inguruak aztergai

Erredakzioa / Iruñea

SAKANAKO Kirol Batzordeak, Olaztiako Udalak eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatuta, Sakanako Bosgarren Kirol Astea egiten ari dira egun hauetan Olaztin. Astelehenean hasi zen eta bihar bukatuko da. Joan diren egunetan, mendia, pilota eta futbola izan dira protagonista. Gaur, berriz, txirrindularitza izanen da nagusi Olaztin. Arratsaldeko zortzietan, hain zuzen, ikastetxeko areto nagusian, gaur honen inguruko mahai-ingurua egingen dute, Txirrindularitza profesionala afizionarioaren aurka? Izenburupean. Floren Eskisabel (Caja Rural), Jose Luis Arrieta (Banesto), Iker Flores (Caja Rural), Igor Flores (Euskadi), Txomin Perurena eta Marino Lejarreta izanen dira partaideak. Moderatzaileak, berriz, Juan Mari Guajardo izanen da.

Bihar, berriz, pilota itzuliko da Olaztira Sakanako Kirol Astearen eskutik. X

# Pirinioetatik Everestera

Euskal mendizaletasunaren historia jasotzen duen liburua idatzi du Gregorio Arizek

**G**regorio Ariz mendizale nafar ezagunak Montaña mágica. Veinticinco años de expediciones navarras extracolegas lana eman berri du argitaratu. Asia, Amerika eta Afrikan zeharrek hamaika espedizioen ildoari jarritik, euskal mendizaletasunaren azken 25 urteetako historia jaso du iruindar mendizale ezagunak, 120 orrialde eta 200 argazkitan. Bere oinez zapalduko mendi gertatukoaren kontakizuna egin du batzuetan, eta itzulitako lagunei entzundakoa dena besteetan. Liburu arina, antza eta erakargarria da emaitza. Hitzaurrea Mari Abrego mendizale nafar idatzi du.


Edurne Elizondo / Iruñea

**TXORIA ERREKAN** argitaletxeak Gregorio Arizen *Montaña mágica. Veinticinco años de expediciones navarras extracolegas* lana eman berri du argitaratu. Asia, Amerika eta Afrikan zeharrek hamaika espedizioen ildoari jarritik, euskal mendizaletasunaren azken 25 urteetako historia jaso du iruindar mendizale ezagunak, 120 orrialde eta 200 argazkitan. Bere oinez zapalduko mendi gertatukoaren kontakizuna egin du batzuetan, eta itzulitako lagunei entzundakoa dena besteetan. Liburu arina, antza eta erakargarria da emaitza. Hitzaurrea Mari Abrego mendizale nafar idatzi du.

Orain dela bi urte jaio zen Arizen mendi magikoa, benetakotontortretan bizitako eronken—lortutakoen eta lortzearen— isla fidela izateko xedearekin. Bizitza osoan bildutako argazki eta esperientzien inbentarioa egin du eta hutsuneak aurkitu dituen lagunei eskatu dizkie berenak. 1971. urteko Hoggar-eko espedizioa mendiko magalean egindako bazkari batean sortu zen bezala, joan den urteko Gabonetan egindako beste batean lortu zuen bere asmoak mendi gertatukoaren kontakizuna egin du batzuetan, eta itzulitako lagunei entzundakoa dena besteetan. Liburu arina, antza eta erakargarria da emaitza. Hitzaurrea Mari Abrego mendizale nafar idatzi du.

Bere aitaren eskutik, txikitik ezagutu zuen Gregorio Arizek mendia zer den, eta bere alabek, Arantxa eta Nerea, bera izan dute gidari. Berari esker, Aconcaguara iritsitako neskarik gazteena izan zen Nerea, hamalau urterekin. Ama ere, Pilar Ganuzaga, erudigarri izan dute. Bera da 8.201 metroko Cho Oyu-ren gailurrera iritsi den emakume nafar bakarra. Ez da harritzekoa, beraz, Gregorio Arizentzat mendia benetako pasioa izatea. «Droga baten pareko grina da, eta inoiz ez zait agortuko mendi-tarako gogo». Eta gogo horren asgarri Pirinioak izan zituen lehendabiziko Gregorio Arizek. «Mendizale nafar guztion jaiolera dira gure Pirinioetako mendi maitek».

**Hoggar, lehenengo abentura handia** • Pirinioak lehendabiziko Alpean ondoren, eta 1971. urtean, azkenik, Hoggar mendiko paretak. Ordua arte, urriak izan ziren mendizale nafarrek ateraldia —Armando Telleria Mexikoko Orizaba gailurrera iritsi zen (5.750 metro), Javier Nagore eta Jose Luis Los Arcos Aljeriako Ras Timedouin-era (2.305) eta Juan Mª Felu Peruko Andeetako



Hoggar-en, espedizio taldea La Garet el d'jenoun mazizoaren aurrean. GREGORIO ARIZ

Atunraju-ra (5.987) — eta Gregorio Ariz eta bere lagunentzat benetako lehen abentura izan zen urte hartakoa. «Abentura nahi genuen eta bila joan ginen». Iruñean Land Rover zahar bat erosi eta konpondu eta basamortura iritsi ziren Gregorio Ariz, Daniel Bidaurreta, Abel Alvira, Jose Ignacio Ariz, Carlos Santiquerita eta Iñaki Tapia. «Ederra izan zen».


Basamortuko eguzkipekik aterata eta Groenlandiako izotz artera joan ziren mendizale nafarrek 1973. urtean. Baina eskalada zailak laster baztertu eta mendiak altueraren arabera aukeratu ziren. 1976. urterako hainbat nafar alegetiak ziren 6.000 metrotara, eta Gregorio

Arizek, beste batzuek bezala, 7.000 metrotan jarri zituen begiak. 1976. urtean Hindu-Kush-eko Shakauren mendirantz abiatu zen iruindarra. Bertan, 7.116 metroko gailurra ezekik, ez beharra ere topatu zuten nafarrek, izotz artean utzi behar izan baitzuten Leandro Arbela lagun eta taldekidea. Gerardo Plaza, 300 metro amlidu ondoren, hanka bat eta hainbat saiheratu aurkitu zuten. «Mendiak bere aurpegiak alaiena eta baita tristeena eta gogorra ere erakutsi zigen. Negarrari ezin eutsiz egon ginen, 6.000 metrotan».

6.000, 7.000... 8.000. Zenbaki magikoa —mendi bera bezala— mundu osoko mendizaleentzat.

Baita nafarrentzat ere. Shakauren mendiko gailurretik jaitzi eta zortzi mila metroko mendira abiatu ziren iruindarra. Baita nafarrentzat ere. Shakauren mendiko gailurretik jaitzi eta zortzi mila metroko mendira abiatu ziren iruindarra. Baita nafarrentzat ere. Shakauren mendiko gailurretik jaitzi eta zortzi mila metroko mendira abiatu ziren iruindarra.

«Tximist espedizio taldeek, baina, ez zuten euren hel-



Groenlandiara joan zen taldea. GREGORIO ARIZ



Hoggar-en 1971n euren, Groenlandiara joan zen Gregorio Ariz bi urte geroago. GREGORIO ARIZ

burua lortu, eta 1979. urtean, Dhaulagiri-ren tontorrean, zortzi milatik goragoko (8.172) gailurrera iristen ziren lehen euskaldunak izan ziren Iñaki Aldaia, Xabier Garaioa eta Gerardo Plaza. Jordi Pons kataluniarra ere gailurrera iritsi zen, baita Ang Rita sherpa ere. Gregorio Ariz bera, Trini Cornellana, Mari Abrego, Jose Ignacio Ariz, Pitxi Egullor, Pili Ganuzaga, Javier Garrea, Angel Irigolien, Angel Martinez, Agustin Setuain eta Jordi Colomer, Ramon Bramona eta Joan Massons kataluniarrak ziren espedizio jendetsu hortako kideak.

**Hamaika helburu bete, hamaika erronka zain** • Denborak aurrera egin ahala, distantziak, mendizaleak bezala, aldatu egin dira. Hamaika espedizio egin dituzte

«Lehen ia ukezinak ziren mendiak hurbil daude egun». Lehengo zortzimilakoa zapaldu ondoren, 1980. urteko maiatzaren 14an Martin Zabaletak eta Pasang Temba sherpa-k ikurrina eta Nepalgo bandera jarri zituzten Everest-eko gailurrean, Xabier Garaioa eta Xabier Erro atzera egin behar izan ondoren. «K2-ak ere amore eman du mendizale euskaldunaren aurrean. Mari Abrego eta Josema Casimirok 1986ko ekainaren 23an ukitu zuten mendi guztien artean Mendia den —halaxe erraten diote batzuk— K2-ren tontorra. Urte horretan, hamahiru lagun zendu ziren bertan».

Azken hamar urteetan, ugari izan dira mendizale nafarren eta oro har euskaldunen erronkak. Hamaika espedizio egin dituzte

munduko hamaika txokotara, hamaika menditara: Everest, Chogolisa, Yosemite, Kangchenjunga, Annapurna, McKinley, Paine, Trango, Baffin, Shisha-Pangma... Zortzi mila metrotik gorako hamalau mendiak bideratzen egin dituzte nafarrek; bost falta dira...

Bitxia bada ere, hamaika espedizioan ibilgaitik Gregorio Arizek ez du zortzi mila metroko muga gainditu oraindik. Baina horrek ez du gehiegi kezkatzen. «Laisaitasuna da mendizaleetasunaren ezaugarrietako bat. Nik badakit egin dezakedanarekin kontent egon behar dudala, eta banoago. Chogolisa-ko tontorrean —7.654 metro— bezain ongi ibiltzen naiz Aralarren edo Belaten, mendia begiekin, sudurrarekin eta belarrietan sentitutza».

PROGRESIOA ALTURAN			
Data	Mendizaleak	Mendia	Herria
56-11-19	Armando Telleria	Pico Orizaba (5.750 m.)	Mexiko
67-7-19	Juan Ma Felu	Atunraju (5.987 m.)	Peru
76-7-25/28	Abel Alvira, Xabier Garaioa, Javier Pastor, Julian Lasterra, Gerardo Plaza, Gregorio Ariz, Iñaki Aldaya, Javier Garrea, Trini Cornellana	Shakauren (7.116 m.)	Hindukush
78-7-19	Mari Abrego, Gerardo Plaza, Pitxi Egullor, Alejo M. de Lizarrondo	Noshga (7.492 m.)	Hindukush
79-5-12	Gerardo Plaza, Xabier Garaioa, Iñaki Aldaya	Dhaulagiri (8.168 m.)	Himalaya
80-5-4	Xabier Garaioa	Everest. Ipar muturra (8.760 m.)	Himalaya
92-9-25/3-10	Pitxi Egullor, Patxi Fernandez, Pedro Tous, Mikel Raparaz	Everest (8.848 m.)	Himalaya

**Gregorio Ariz:**  
«Droga baten pareko grina da, eta inoiz ez zait agortuko mendietara igotzeko gogo»

«Euskal mendizaleetasunaren historia nafarrena ere bada; ezin dira banatu, elkarrekin ibili gara beti»

«Bota handi-handiak erabiltzen genituen guk, inon sartzen ez zirenak, burnizko itxeak eta zurezko tako eta mosketoiak. Tresna hauek guztiak askoz sofistikatuagoak dira gaur egun»

«Shakauren mendiak bere aurpegiak alaiena eta baita tristeena eta gogorra ere erakutsi zigen. Negarrari ezin eutsiz egon ginen, 6.000 metrotan»

### ZORTZIMILAKO MENDIGOIZALEAK

Mari Abrego	Makalu	8.463 m.	1984
	K2	8.601 m.	1986
	Nanga Parbat	8.125 m.	1992
Iñaki Ochoa de Olza	Broad Peak	8.047 m.	1995
	Shisha Pangma	8.008 m.	1995
	Hidden Peak	8.068 m.	1996
Xabier Garaioa	Gasherbrum II	8.035 m.	1996
	Dhaulagiri	8.167 m.	1979
Josema Casimiro	Cho Oyu	8.201 m.	1985
	K2	8.601 m.	1986
Patxi Egillor	Broad Peak	8.047 m.	1995
	Cho Oyu	8.201 m.	1990
Patxi Fernandez	Everest	8.848 m.	1992
	Cho Oyu	8.201 m.	1990
Mikel Reparaz	Everest	8.848 m.	1992
	Cho Oyu	8.201 m.	1990
Pedro Tous	Everest	8.848 m.	1992
	Cho Oyu	8.201 m.	1990
Gerardo Plaza	Everest	8.848 m.	1992
	Dhaulagiri	8.167 m.	1979
Iñaki Aldaya	Dhaulagiri	8.167 m.	1979
	Gasherbrum II	8.035 m.	1989
Jose Miguel Goñi	Gasherbrum II	8.035 m.	1989
	Gasherbrum II	8.035 m.	1989
Xabier Erro	Gasherbrum II	8.035 m.	1989
	Cho Oyu	8.201 m.	1990
Koldo Aranguren	Cho Oyu	8.201 m.	1990
	Cho Oyu	8.201 m.	1992
Pili Ganuzaga	Cho Oyu	8.201 m.	1992
	Cho Oyu	8.201 m.	1992
Alfonso Ballao	Cho Oyu	8.201 m.	1992
	Cho Oyu	8.201 m.	1992
Josema Oñate	Everest	8.848 m.	1993

## Ariz: «Ezin da bakarrik nafar mendizaleetasunaz hitz egin»

EUSKAL mendizaleetasunaren historiari erreparatuta, gertatu diren aldaketak azpimarratzen ditu Gregorio Arizek. «Distantziak jada ez dira berdinak, eta are gutxiago teknika. Bota handi-handiak erabiltzen genituen guk, inon sartzen ez zirenak, burnizko itxeak eta zurezko tako eta mosketoiak. Tresna hauek guztiak askoz sofistikatuagoak dira gaur egun. Nik burdinola nuen eta hantxe egiten nituen nire itzeak. Sokak lotzeko arnesak ere ez genuten eta gerrian lotu behar genituen».

Mendietara joateko prestatzeko modua ere da berdina. «Igazdeetan joaten ginen gu mendira eta

huraxe genuen entrenamendu guztia. Orain, gimnasioetan, Gotorlekuan eta Etxaurin ibiltzen dira etengabe». Baina horrek ez du erran nahi Gregorio Arizek ikasi ez duenik. Ori-Mendi taldean hasi zen baina ondoren Nafarroa Kirol Elkartean sartu zen, bertan baitzegoen Nafarroako eskalada talde bakarra. Daniel Bidaurreta eta Marcos Felu izan zituen han maisu. Bi urte egon ondoren, ordea, bera izendatu zuten irakasle, eta hamabost urtez bete du lan hori.

Teknikak bezala, mendizaleetasunak bereak ere bizi izan ditu aldaketak eta garai ezberdinak. Gregorio Ariz hasi zenean, «oso jende gutxi zegoen», gogoratu zuen. Baina 70eko hamarkada hastean zenean, berpiztu egin zen mendizaleetasuna Arizek dioenez. «Gauza garrantzitsuak egin ziren orduan, paretak eta bide zail eta inportanteak egiten eta zabalitzen hasi ginen». Zailtasuna, baina, baztertu zuten 80ko hamarkadan hasieran, eta altueraren bila hasi ziren mendizaleak. «Oraingo eskalatzaleak egin dituzten guztiak berriz joan dira zailtasun bila; Nafarroan bertan, gazte on asko dago oso gauza zail eta garrantzitsuak egiten ari dena». Hori dela eta, Hoggar-en euek egin zutenaren eta oraingo eskalatzale ausarten arteko parallelismoa ezartzen du

Arizek: «Guk orduan egin genuena oso garrantzitsua izan zen, erabat ezaguna baitzen guretzat. Orain ere, gauza oso inportanteak lortzen ari dira Patagonian, Baffin edo Trangoan, besteak beste».

Nafar mendizale gazteak aipagai baditu ere, Gregorio Arizek ez du ueste euskal mendizaleetasunetik at nafar mendizaleetasunaz hitz egin daitzekunik. «Ezin dira banatu. Ezin da bakarrik nafar mendizaleetasunaz hitz egin, ez dago nafar mendizaleetasun esklusiborik, euskal mendizaleetasunaren historia bera nafarrena ere. Elkarrizketak ibili gara berarekin, gipuzkoar bizaikarrik...».

Xanti Begiristain

## Inbasioak

■ Aurreko asteburuetan Miguel Sanzek egin dituen adierazpenak egin ondoren, eta jaso dituen erantzunak entzun ondoren, bilduta daude Jesus Aizpun eta Miguel Sanz, azken honek zalantza batzuk argitu nahi dituelako bere *arimako aita* rekin.

Honela mintzatu zaio Miguel kezkatu samar Jesus Aizpuni:

—Benetan ongi egin nuelakoan al zaude euskal abertzale guztien aurka esan nituen gauza guztiak, zuk bultzatuta, esan eta gero?

—Bai motel!, ez hadi kezka! Gogoan eduki behar duk euskal abertzale guztiek autodeterminazioa nahi dutela, eta horrek, gero, independentzia ekar dezakeela. Beraz, Espainiaren zatiketa. Gure aurkako. Gure etsai zuzen eta handia. Hortaz ba, lasai Miguel! Ez eman buelta gehiago kontu horri! —erantzun dio Jesus Aizpunek serio bezain irmo.

—Bai Jesus, baina orduan zer gertatzen da 'Baztango euskaldunekin', alegia, beren botoa UPN eta PPri ematen dietenekin? Euskaldun horiek ez al dira abertzaleak? Zeren eta begira aita, barkatu! Jesus, egun hauetan aritu naiz kontsultatzen entziklopedia batean, eta abertzaletzat definitzen zuen «aberriaren zalea», eta orduan zer gertatzen da, 'Baztango' gure boto emaile euskaldunek ez dutela «Aberria» maite edo zer? Begira! Egia esan nahiko nahastuta nago!

—Tira Migueltxo! Jakin behar duk gauza bat, hau duk, guri botoa ematen diguten euskaldunek, horixe maite dutela «Aberria», jakina!, baina Espainiakoa, eta ez Euskal Herrikoa, noski! —berriz ere sutuki eskuindar zaharrak.

—Ah! Beharrik! Ez dakizu zer-nolako kezka eta zama kendu dizkidazun gainetik, aitatxo! Oraintxe

hasi naiz pixka bat lasaitzen. Dena den, Josu, deitu ahal dizut Josu, ez da hala, Aizpun maitea? Gainera, oraintxe bertan konturatzen naiz abizena euskalduna duzula, baina ziur naiz zure abizen euskaldun hori, euskalduna baina onen taldekoa izanen dela, hots, euskaldun baina aldi berean espainiarra, edo antzeko zerbait, ez al da hala, eh, Josu? Egia esan, ez dut oso ongi eta garbi ulertzen kontzeptu hori, baina zuk horrela esan ohi duzunez gero, seguru nago arrazoi izanen duzula eta horrela izanen dela. Dena dela, Josu maitea, lehengo ildoari jarraituz eta haria galdu baino lehen, zeren eta niri berehalaxe nahasten baitzait burua, beste zalantza korapilatsua eta zail bat ere badaukat, alegia, aurreko adierazpenetan, zuk esanarazi zenidanean Aberri Eguna eta Nafarroa Oinez bezalako bilkuretan kanpokoen inbasioak gertatzen direla % 80an gutxienez, nola erantzun behar diegu Ezker Abertzalekoek, aipatzen dizkigutenean Sanfermin, Eguberri, Donejakue bidea, nazioarteko biltzarrak, konferentziak eta beste hainbat motatako *inbasioak*? Aintzat hartu gainera, Josu nere bihotzekoa, arima gabeko horiek dagoeneko hasi direla botatzen beren pozoin eta eztenak *Egin* izeneko panfleto horretan— galdetu eta iruzkindu dio estu samar Miguel Sanzek Jesus Aizpuni berririo ere.

—Trankil motel! Horiek ere kanpotarrak dituk, egia duk, eta nola edo hala Sanferminetan eta, inbaditu ere inbaditzen gaitiztek, baina horiek inbaditzaile onak dituk, Migueltxo, ez digutelako zaborrik uzten, baina dirua bai ordea, eta gainera urrutiko inbaditzaile horiek ez diate politizatzen; hurbilekoek aldiz, bai. Ea noiz hasten zaijan argitzen pixka bat burua, Migueltxo laztana! ■



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Rabelais eta beste

■ *Jona andie guaus sa goussietan be harda er remedio beharde bersela ysser landa. Anbates otoy y es nassu ey nessassu gourray proposian ordine den. Nonyssena bayta fascheria egabe gen herassy badla sadassu nouira assia. Aran hondouan gual de eydassu naydassuna. Estou oussyc eguinan souroy hin er darstura eguy harm. Geincoa plasar vadu.* Eta honela arrapostu eman zion Endemon Geincoa zenak. Ez da erabat isilpean pasatu den testu horietakoa, eta guziarekin, gehiago izan dira honakoa ikertu duten kanpotarrak bertakoak baino, ohikoa denez, bestalde. Hala behar nonbait. Vinsonek etzuen zalantza zirrikitu tallarik ere erakutsi ekarri dugun testuaz irmoki honela baieztatzen: *Le plus ancien texte basque imprimé connu est le petit discours de Panurge*. Rabelais zenak XVI. mendean ondu *Pantagruel* lanaren bigarren liburaren IX. kapituluari dagoen Panurgok esana. Pantagruelak egiten dizkion galderak: *Qui êtes-vous? D'où venez-vous? Où allez-vous? Que voulez-vous? Quel est votre nom?*. Panurgok deslax murtuts erantzuten dio zenbait hizkuntza desberdinetan suminduraz suminduraz itaun egileak ahalik eta gutxien uler dezan: alemaneraz, arabez, italiaraz, ingelesez, gazteleraz, danieraz, grekeraz, behe-bretoiaraz, eta azkenik, noiz edo noiz ere latinez. Solaskideak fitsik ere ulertzen ez duen eta, esandako guzien laburpena egin beharra dio frantsesez, besterik gabe, goseran gozte dagoela aldarrikatzeko, eta tripa bete ostein prest lego-keela edozein galderari ihardesteko. Euskaraz ere, hauxe litzateke goragoko testuaren funtsa sakona nahiz mami maratz lodia.

Beraz testu ez horren ilun honen interpretazioa egiten lehena Ange-Jacques-Marie de la Chabeaussière izan genuen, Parisen 1755eko abuztuaren 6an sortu eta ber hirian 1823ko urriaren 22an zendu zena. Euskal Herria sobera ongi ezagutzen zuen norbait bazen honako gure hau, beste bidaiari bat besterik ez baitzen. Olerkariak gainera, mineralogaria ere bazen, eta horren kariak Baigorriko meategietako zuzendari jardun zuen. Nafarroa Beherean zegoela euskara ikasi bide zuen, eta euskal gaien ikerkuntzan ere trebatzen hasiko zen. Garaian garaiko beste ikertzaile askoren antzera hau ere iberista izan zen, eta bere burua grotzeko agertu berria zegoen Lagunen Elkartearen hautan izan zuen, horren kidea izan zelarik.

Euskaldunetz mintzo *Mélanges: aperçus sur le peuple basque* izenburuko idazkia ondu zuen, *Mercur de France* argitalpenean 1814ko uztaillean argitaratu eman zena. Geroantzean Parisko Audinen etxean imprimaturiko Richarden *Guide aux Pyrénées: itinéraire pédestre des montagnes* liburuari itsatsi zitzaion mendebaleko Pirinioak gai zuten kapituluaren hornigarri. Honek edizio ugari izan zuen 1830, 1834, 1840, edota 1841. urtean, beraz zabalpen ezin naraogo. Euskal literaturaz honelaxe zioen zorrozki: *Les basques sont illettrés: on ne connaît qu'un seul livre un peu ancien, nommé Atchoular, il est composé d'exhortations chrétiennes, appuyées de preuves tirées des livres saints, des livres profanes et de l'histoire ancienne; j'en ai traduit une portion que je ferai connaître un jour. Dans des temps plus modernes, on a essayé de composer une grammaire et un dictionnaire basques; mais ils n'ont pas complètement rempli le but de l'auteur —urteengatik Larramendiz ari zitekeen—. Quelques basques, et entre autres un prêtre, nommé Goudard, ont composé, il y a une quarantaine d'années, des poésies et surtout des chansons: elles sont peu répandues: comment le seraient-elles chez un peuple qui ne s'occupe guère de lecture ni de sentiments alambiqués?.* Idazki honetan guri dagokigun pasarteaz zer edo zer esaten da, ez gauza handirik ordea.

Handik gutxira, 1826an, Fleury Leclusek ber gauza egin zuen bere *Manuel de la langue basque* idazkirako ondu zuen *Examen critique* delakoan, lapurtar eta zuberotar biren laguntzaz, halaz guztiz ez dakigu nortzuk zirentz. Alabaina ez genuen oso lan fidagarria Okzitaniako Tolosako irakasleak aurkeztu ziguna, eta horren zuzentzeko asmotan Archu atzürükütarrak bi itzulpen proposatu zizkigun, bata 1858an, Gustave Brunetek Parisen argitaratu emaniko *Notice sur les proverbes basques* liburuan ageri zena, zinez oker, motz eta kamuts, berak errefusatu egin zuena; eta bigarren bat 1872an, Baionako *Impartial des Pyrénées et des Landes* egunerokoan kaleratua, eta geroxeago ere, Vonsonen eskutik, 1878ko *Études de linguistique et d'ethnographie* delakoan. Vinsonek berak ere, etzuen bere burua bazterretan largatu nahi, eta ekarpen serioa eskaini zigun *Revue des études rabelaisiennes* izenburukoan 1905ean. Honen aburuz, Rabelaisi lagundu ziona jaun handien menean zeuden euskaldunetakoa zatekeen, zuberotarra edo baxenafarra. Halaber, paristarrek *Pantagruel* lanaren Ichendabiziko liburuen bosgarren kapituluari euskaraz agertzen den hitz pare baten berri ere eman zigun: *Lagona, edateral, camarade, à boire!* edota *compañero, a beber!* bezala itzuli dena, nabari denez, eta testu inguruak berak aski argi aditzera ematen dutenez.

Julio Urkixoren ekarria 1925eko RIEV eta Saint-Pierrerena 1921eko *Gure Herria* aldizkarietan eman ziren argitaratu. Clement Jauregiberrik ere berea eskaini zigun *Le Miroir de la Soule* egunkarian. Antonio Labaienek eta Damaso Intzakoak, berriz, 1963. eta 1965eko *Egan* argitalpenean agertu zuten hurrenez hurren. Azkenik, eta aurreko guzien laburpena eraotan gaituena, Koldo Mitxelena eskaini zigun 1964ko bere *Textos arcaicos vascos* lan klasikoan.

Ahitzeko, eta hasmenta ereduari jarraipena eta amaiera emateko, hona hemen litekeko berregiketara: «Jaun handia, gauza guzietan behar da erremedio, behar den bezala izan, lan da. Hanbatez othoiez nauzu, egin ezazu gure proposiam ordine den, non izanen baita fastxeria gabe, lin erazi badiazadazu neure asean. Haren ondoan, galde egidazu nahi duzuna. Eztut hutsik eginen zuri ihardestera egiazen, Jainkoak plazer badu». ■

**Xemark Etxart:**  
«Baserritar gehienak oso individualistak dira oraindik, ez dute taldean lan egiteko ohiturarik»

rritutako nekazaritza politika bultzatu dute 30 urtetan zehar», azaldu du Xemark, «denetarik ekoizten zuen ustiategi txiki batetik mekanizazioerantz jo du jendeak, uzta handietara, eta hori lortzeko produktu kutsagarriak erabili eta hondakin arriskuak sortu dituzte».

Etxe Mozkin Egileen elkarteak, hain zuzen, gai honen inguruko gogoeta piztu nahi du. «Ez dugu atzera egin nahi», dio Xemark, «sistema beraren barrutik kutsadura gutxiago sortzen duten teknikak ezarri baizik; nekazaritza independentea, autonomoagoa eta merkeagoa bultzatu nahi dugu».

**Mentalitate aldaketa** • «Hogei urtetik hona ezin daiteke erran mentalitate aldaketa orokorrik izan denik. Mentalitate aldaketak arazo bat sortzen denean baino ez dira gertatzen. Iparraldean batez ere, egiturak txikiak baitira», erran digu Xemark Etxartek gai honi buruz galdetu diogunearan.

Etxartek dioenez, «baserritar gehienak oso individualistak dira oraindik, ez dute taldean lan egiteko ohiturarik, egiten ari direnaz gogoeta egiteko ohiturarik. Donapaleun, enpresarien mentalitatea duten baserritar anitz daude, hazi eta hazi besterik nahi ez dutenak, eta alboan dutena jan. Baina, oro har, baserriak sakabanatuta daude, ez dago bizitarik herrietan eta haurrek ez dute lagunik. Agian ez dira honen ondorioez asko jabetzen, baina mentalitate hori egon badago». Errealitate hori dela eta, taldeka gauzak garatzeko asmoa eta gogoeta duen korronea badagoela aipatu du Etxartek, ELB sindikatuak ordezkatzen duena, hain zuzen. «Lortzeko bideak abian jartzea beste gauza da, baina jende askok daki etorkizunerako gure nekazaritza ekonomia batoratu egin behar dugula».



Arrapitz federazioan teknikari koordinatzailea da Xemark Etxart.

JULEN ARRIOLA

## Arrapitz, laborarien bilgune

Zortzi nekazaritza kooperatiba biltzen ditu elkarte honek Nafarroa Beherean

**D**uela hamabi urte, laborarien artean kooperatiben mugimendua errotzen hasi zen Iparraldean. Ildo honetatik, Nafarroa Beherea ez da salbuespena; alta, bertako baserritarrek dira horien bultzatzaile, eta horren adibidea da gehienek Donibane-Garazin edo Donapaleun dutela egoitza nagusia, Arrapitz-ek kasu.

Julen Arriola / Donapaleu

NEKAZARITZAREN bestelako garapenaren aldeko Arrapitz federakuntzak kooperatiba hauekiko zortzi biltzen ditu Nafarroa Beherean. Arrapitzeko teknikari koordinatzaile Xemark eskualde honetan nekazaritzak duen egoeraz eta etorkizunaz mintzatu da gurekin.

80ko hamarkadatik Iparraldeko nekazaritza guneak zuzpertzeko lanean diharduten zenbait sektorek ideiak eta ahaleginak trukatu beharra sumatu zuten 1991n. Hori zela eta, federakuntza apirilaren 19an jaio zen Iparralde barrualdeko 11 kantoietan dauden 470 nekazaritza ustiategiak erabaki zuten zortzi kooperatibekin. Xemark gogoratu duenez, «Arrapitz oso une konkretuan jaio zen. Kooperatiba horietako batzuek proiektuak ziztuzten, baina aurrera eramateko arazo ugari ere bai. Federatzea erabaki zuten eta euren indarrak batzea. Arrapitz besteen proiektuak laguntzeko borondateak sortu zuten, bai eta pertsona egokiekien harremanetan jartzeko gogoak ere».

Harrigarria bada ere, Xemark Etxartek ez du lurra lantzen, nekazaritza teknikaria da. Bere lana da proiektuak laguntzea eta sustatzea, bilerak zuzpertzera eraginkorrak izan daitezkeen, be-

harrezko dituzten finantzabideak bilatzen lagundu, eta ondoren, horien jarraipena egin. «Ez dugu jendearen orde lan egiten, dituzten proiektuak garatzen laguntzen diegu soilik», zehaztu du Parisen jaiotako gazte honek. «Hala ere, ez dugu edozein proiektu mota laguntzen. Ideia da Euskal Herriko garapen orokorra eta biztanleak hemen gelditzea lortuko duten proiektuak bideratzea».

**Nekazaritza guneen hustea ez da sumatzen** • Iparraldeko barnealdean mintzatzean, ezinbestekoa da emigrazioa eta nekazaritza guneen hustea aipatzea. «Hustea ez da Frantziako beste eskualde batzuetan bezain nabarmena, baina dagoeneko gertatzen ari da Atharratzeko eta Iholdiko kantoietan. Inork aurrera eraman nahi ez dituen nekazaritza ustiategiak daude bertan». Egun, Arrapitz gai honi buruzko inkesta egiten ari da, duen garrantzia neurtu, eta, bide batez, lurra lantzeko gogoz dauden nekazari gazteak ustiategi hauetara eramateko asmoz.

Xemark Etxartek ustez, bi arrazoi nagusi daude gazteak baserrietatik alde egiteko: «Alde batetik, lan baldintzak oso gogorrak dira, eta, bestetik, sekula ez da nekazaritzaren irudi positiboa zabaltzen. Hala ere, gaur egun hi-

rietan ere lanek ez dagoenez, nekazaritzari esker duintasunez bizi daitekeela frogatzea da gure asmoa».

Estatistikariek ezean, azken urteotan emigrazioa gelditu egin dela uste du Xemark. «Kostalderako edo hiri handietarako emigrazioa txikiagoa da, langabezia dela eta, hain justu».

Seme zaharrenak baserrian gelditu eta besteek alde egin behar zutela ezartzen zuen ohitura, hain zuzen, aldatu egin da fenomeno honen eraginez. «Gaur egun gutxiago gertatzen da hori, langabeziaren arazoa dela eta, hain zuzen. Seme-alaba

gutxiago edukitzen dira eta guztiek etxean lanean jarraitzeko aukera izan dezaten salatzeko da familia».

Garapen honekin zerikusirik badu kooperatiben mugimendua. Mugimendu honek, hain zuzen, Iparraldeko nekazaritza guneetako ekonomia bultzatu nahi du. ELB nekazarien sindikatuko kideen inguruan sortu da kooperatiben mugimendua. Sindikatu honek laborarien % 50 ordezkatzen ditu, eta, beste hainbat gauzaren artean, nekazaritza orekatuago baten aldeko apustua egiten du.

«Frantziako produkzioan oina-

## Zortzi elkarte Arrapitzen

IPARRALDEKO barnealdean nekazaritza gunea izanik, Arrapitz federazioaren barnean zortzi erakunde badira laborarien beharrei eta kezkei erantzuteko. Zortzi horietatik zaharrena GFA da, Euskal Herriko mutuala. 1979an sortua, bere helburua desagertzeko zorian diren nekazaritza ustiategiak erosi eta mantentzea da, ondoren laborari gazteei zuzteko. Urteotan bederatzirekin operazio egin ditu, 1.350 lagunek jarraituko diruari esker.

Arrapitzen Garaziko Saloir Collectif elkarte dago. 1983an eratu zen gazta ekoizteko. Egun 65 gaztegiak osatzen

dute eta aurten 80 tona gazta produzitu dituzte. Bada besterik gazta produkzioan. Etxe Gazna 1986an sortu zen, eta Garazikoaren antzekoa da. Zuberoako 25 produktorek osatua da, eta 15 tona produzitzen ditu urtero.

Produktuari ezezik, nekazaritza ustiategietan dituzten hainbat kudeaketa gabeziari —kontabilitatea, proiektuen prestakuntza eta dirulaguntzak, besteak beste— irtenbidea aurkitzen saiatzen den elkartetik ere bada. AFOG kudeaketarako heziketak 500 bazkide ditu, eta 1983an sortu zen. Ildo beretik doa

Etxe Mozkin Egileen elkarte. 1989. urtean bildu ziren lehen aldiz beratu osatzen duten 100 bazkideak, nekazaritzako produktuei dagokienez Frantziako arautegi gogorrari aurre egiteko asmoz. Elkarte hau, baina, Idoki izenez ezagunagoa da, hau baita elkarte 60 kidek 1992. urtean sortu jatorri izena baserrietako produktuak babesteko. Aurten Salte sortu dute, euren produktuak komertzializatzeko egitura, baita L'accueil paysan nekazaritza turismoa proposatzen duena.

Artzain Lurrik Gabe, beriz, Zuberoan oraindik dauden ha-

mabost artzainek osatu zuten 1989. urtean, euren lanbidea bultzatu eta babesteko. Sagaritza elkarteak, beriz, sagardoaren produkzioa bultzatu nahi du berriro, 1990. urtetik, orain hainbat urte desagertu baitzen jardura hau Iparraldean. 30 baserritarrek osatzen dute Sagaritza, eta aurten sagardorako 30 tona sagar produzitu dituzte. Biharko Lurraren Elkarteak, azkenik, nekazaritza autonomoagoa garatu beharraz gogoeta piztu nahi du. 1993. urtean sortua, Arrapitzen dauden elkarten artean berriena da, eta 20 bazkide ditu. X

# «Joskera berriak bilatu behar ditugu»

**E**gile berrientzat Iruñeko Udalak antolatutako euskarazko literatur lehiaketako irabazleen izenak jakinarazi dituzte aste honetan. Narrazio motzean Juan Kruz Lakasta lankideak irabazi du, Unai Agirrek bertso-paperetan Unai Agirrek eta kimiki sailean Patricia Alvarezek. Olerkarien artean Gontzal Agotek eskuratu du onenaren saria. Berarekin mintzatu gara sariatz eta poesiaz.

Edure Elizondo / Iruñea

GONTZAL AGOTEK ez zuen irabaztea espero, baina donostiarrrak Iruñeko Udalean aurkeztu poema sortarekin onenaren saria eskuratu du. Poema sorta iluna da, egileak berak aitortu digunez, «bizitza bera ere halakoxea baita askotan».

■ **Zu zaitugu Iruñeko Udaleko lehiaketako irabazle berria olerki sailean. Nola hartu duzu berria?**


Pozik, noski; sariak beti dira pozgarriak, baina ez nuen espero. Aurkeztu nituen olerkiak ere ez nituen lehiaketarako propio idatzi. Lehendik eginda neuzkan olerkien artean hautatu ditut.

■ **Olerki independenteak dira edo badute elkarren arteko loturarik?**

Printzipioz elkarren artean loturarik ez duten hamalau-hamabost olerki dira. Baina guztiak dira nahiko ilunak. Alde horretatik badute lotura, eta sarrera eta izenburu bakarria idatzi dut guztientzat ere. Egiturari dagokionez, gainera, nolabaiteko lotura eman diet beste olerki bat erabiliz. Horren zati bat jarri dut olerki bakoitzaren gainean. Nolabaiteko haria da.

■ **Olerki ilunak direla diozu. Noja ilunak?**

Ilunak direla esatean esan nahi dut ez direla alaiak. Baina tris-teak ere ez dira, agian apur bat



Gontzal Agotek irabazi du Iruñeko Udaleko lehiaketa olerki sailean.

LUIS AZANZA

pesimistak. Eguneroko istorio sinpleak dira, baina guztiak dute etsipen kutsu bat. Gero eta gehiago literatura alaia irakurtzeko ohitura dugu, baina literatura horrek ez du gure eguneroko bizimoduaren islarik. Beste planteamendu bat egiten dut nik, beste alderdia ere ezagutu behar baita. Beraz, planteamendu kritikoa ere bada. Bizitza halakoa da eta horrela hartu behar dugu, baina distantzia ezartzen saiatu behar dugu. Maitasunak berak bere alderdi iluna du, nahiz eta normalean ez agertu, eta, nire ustez, hor daude kontatzeko istoriorik politenak.

■ **Poesiak hondaturiko paisaiak aukeratu duzu zure olerkion izenbururako. Olerkien iluntasunarekin inolako zerikusirik ba al du?**

Poesia, hain justu, paisaia go-

raipatzeko erabili izan da, baina paisaia ez da beti polita. Baina esaldi horri buelta eman dakioke ere, paisaiak hondaturiko poesia ere izan dezakegu. Azken finean, olerkiak halakoak dira bizimodua ere halakoa delako, ez nik nahi dudalako.

■ **Olerki ilunak ezezik, istorio sinpleak ere idatzi dituzu, diotuzenez. Forma aldetik, nolako olerkiak egin dituzu?**

Olerki sinpleak dira. Ez dut puntuaziorik ezta maiuskularik erabili. Hizkera aldetik ere hizkera ulerterraza erabili dut, inolako zailtasunik gabea. Badago nire iritziz okerra den ustea, hau da, olerkiak ona izateko goi mailako hizkera behar duela. Nire olerkiak askotan instintiboak dira, horrelakoak dira horrela ateratzen direlako, nik ez dut bertsoen zolitasuna edo errima bilatzen. Niretzat inportanteagoa da ideia zolitasuna baino.

■ **Egitura batzuetan ideiak adierazteko muga izan daitekeela uste al duzu?**

Batzuetan bai. Olerki bat ez da

olerki errima duelako. Joskera berriak bilatu behar dira, horretara ere jo behar dugu. Bestela, egiturak, errimak berak, ideia baino garrantzi handiagoa har dezake, ideia bera deskuidatuz.

■ **Zuk 23 urterekin olerki sari bat irabazi baduzu ere, ezin daiteke erran gaur egun olerkigintzak jarraitzaile asko duenik gazteen artean.**

Hizkera dela edo ez dela, teknika dela edo ez dela, jendea askotan zaila egiten zaio poesia irakurtzea. Baina hori ez da bakarrik gazteen arazoa, arazo orokorra da. Askori egiten zaie zaila olerki liburu bat hartu eta irakurtzea. Pentsatu izan dugu poesia gutxi batzuen eskuetan zegoela, asko zekiten batzuen eskuetan. Baina poesia leku askotan dago, pareta batean margotutako esaldia izan daiteke, edo gutun bat, edo abesti bat. Poesia ez da derrigorrez bertsoan idatzi behar.

■ **Beste gazteak al dituzu buruan idazterakoan?**

Ez dut uste, ez dut uste irakurle zehatzentzat idatzi behar duzu-

s o s l a i a

Gontzal Agotek irabazi du aurtentzen Iruñeko Udalak egile berrientzat antolatutako lehiaketako olerki saria. 23 urte ditu, eta jatorrean donostiarra bada ere ongi moldatzen da nafarren artean. Iruñera Kazetaritza ikastera etorri zenetik bertan bizi da. Karrera ia amaitu zuen.

Nafarroako hiriburuan ikasle ezezik, irakasle ere izan da eta bada Gontzal Agote. Orain dela hiru urtetik Txantreako AEKn aritu da. Lehen urratsekoak ditu olerkari gazte honen ikasle.

Ikasle, irakasle eta olerkari. Afizioa txikitatik dator, baina, aitortu digunez, ez da idazle sistematikoa, eta ideia askok ihes egiten diote, «ez baitut idazteko astirik». Bere burua oraingoz idazletzat ikusten ez bada ere, Iruñeko Udaleko lehiaketako epaimahalkideek, behintzat, bere lana gorapatu dute.

nik. Gainera, kontuan hartu behar da irakurle bakoitzak gauza ezberdin bat uler dezakeela zure olerki batean. Lehiaketara aurkeztu ditudanak, zentzu horretan, nahiko zabalak dira, eta nik neuk ere olerkion irakurketa ezberdina egin dut ondoren irakurri ditudanean. Gaiak unibertsalak dira.

■ **Egile berrientzako lehiaketako olerki saileko saria irabazi izana erantzukizuna al da zuretzat?**

Ez, poza da, besterik gabe. Azken finean, sari bat irabazi izana oso erlatibo da, lauk besterik ez baitute irakurtzen zuk egindakoa. Etorkizunari begira, egia erran, ez dut neure burua idazletzat ikusten. Orain arte irakurle izan naiz, asko irakurri dut, gauza asko eta ezberdinak. Olerkiak, nobelak, ipuinak, Latinoamerikako autore gehienak gogoko ditut, oso literatura berezia dute, beste ikuspuntu bat. Benedetti asko gustatzen zait, eta berarekin hasi nintzen olerkiak irakurtzen. x

«Olerkiak instintiboak dira askotan. Nik ez dut zolitasuna bilatzen, ideia garrantzitsuagoa da niretzat»

## P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

